

Categories We Live By: The Construction of Sex, Gender, Race, & Other Social Categories

ÁSTA

Oxford: Oxford University Press, 2018, 140 or.¹

Errefuxiatu, gizon, emakume edo trans moduko kategoria sozialek gure ekintzak mugatzen eta gure identitatea eta auto-ulermena zehazten dituzte. Baina, zer dira zehazki kategoria sozialak? Zein da beraien izaera? Nola sortzen dira? Zein mekanismoren bidez ahalbidetzen edota mugatzen dituzte zenbait portaera?

Liburu honetan, bai galdera horiei, bai antzeko beste batzuei, erantzuna ematen saiatu da Ásta², kategoria sozialen teoria metafisiko berria aurkeztuz. *Conferralism* izena jarri dio teoria horri, eta, bertan, norbanakoaren propietate sozialak beste pertsonen uste eta praktiken ondorioz sortuak direla defendatzen du; norbanakoak dituen propietate sozialak besteek emanak (*conferred*) izan direla, hain zuzen.

Honako hau da ideiarene funtsa. Propietate soziala da norbanako bati emandako propietatea, oinarrizko propietate (*base property*) batzuen arabera. Ástak darabilen «oinarrizko propietate» termino honek erreferentzia egiten dio testuinguru jakin batean esanguratsua den propietate bati. Emandako propietatea, era berean, estatus soziala da, testuinguru horretan norbanakoaren portaeraren aukerek eta mugek osatzen dutena.

Kontuan izan, ikuspuntu honen arabera, zein garrantzitsua den emaitza (propietatea ematen dutenen) ebazpena oinarrizko propietate esanguratsuen existentziari buruz; hau da, propietate jakin baten existentziaren ebazpena da garrantzitsua, ez propietate horren existentzia bera. Hori da *Conferralism* teoriaren ardatz nagusia eta, era berean, ezagunagoa den John Searleren *Constitution Account for Social Properties* (Searle 1997) teoriatik bereizten duena. Azken teoria horretan, propietate sozialek honako estruktura aski ezagun hau dute:

X P -tzat jotzen da C testuinguruan (X counts as P in context C)

¹ Nire esker onak Alexander Martinez Iturriari eta GOGOArene zuzentzaile anonimoei, lan honen estilo-zuzenketekin laguntzeagatik. Edonola ere, nire ardurapean dago ager daitekeen edozein akats.

² Islandiarrek ez dituzte abizenak erabiltzen, baizik eta patronimikoak. Horregatik, eta nahasteak saihesteko, 2017tik aurrera 'Ásta' sinatzen du egileak.

Ikuspuntu honen arabera, zerbaitek P izateko eduki beharreko baldintzak zehaztu ondoren (edozein delarik ere erabilitako modua, izan uste kolektiboak, arauak, instituzioak...), baldintza horiek betetzen diren bakoitzean P-ren kasua eratzen da, jendeak baldintza horien betetzearen ala ez betetzearen inguruan duen ebazpenaren arabera izan gabe. Haatik, Ástaren lanean, jendearen ebazpen epistemikoa da zerbait P-ren kasua den ala ez zehazten duena. Hurrengo kasuak argituko du ideia hori.

Futbol-partida baten testuinguruan, gerta daitezkeen gertaeren artean, golak dira garrantzitsuenetarikoa. Horiek gertatzen dira, laburbilduz, baloiak zenbait baldintza betetzen dituenean (alegia, bi ateetako lerroetako bat guztiz gurutzatzean). Orain, ikus dezagun zein modu ezberdinean interpretatzen duten gertaera hori aztertzen ari garen bi teoriak. Searleren interpretazioaren arabera, baloiak aurrez finkatutako baldintzak betetzeak gola eratzen du, epailearen erabakiarekin zerikusirik eduki gabe. Nahiz eta epailea oker egon eta baldintzak bete direla ez identifikatu, eta, ondorioz, gola markagailura igo ez, gola da. Ástaren interpretazioaren arabera, ordea, epailearen ebazpena da, hain zuzen ere, zerbait gola den ala ez zehazten duena. Beste modu batean esanda, epailearen *ebazpena* da propietatea eratzen duena. Ástaren aurka, Searleren teoriaren eta *Conferralismaren* artean ezberdintasun handirik ez dagoela argudia daiteke. Izan ere, Searleren onarpen kolektiboak (*collective acceptance*) propietate sozialak eratzen dituela defenda daiteke. Hau da, Searleren onarpen kolektiboak eta Ástaren talde esanguratsuen ebazpenak antzeko rola jokatuko lukete. Ástak kontuan hartzen du kritika hau, baina Searleren interpretazioa okerra dela defendatzen du. Searleren onarpen kolektiboak, argudiatzen du Ástak, zerbaitek X izateko baldintzak soilik zehazten ditu. Baldintza hauek betetzen diren ala ez, hori onarpen kolektibotik kanpo gelditzen da.

Ástak onartzen du erabili berri dudanaren moduko adibideek bi teoriaren arteko aldea ilustratzeko balio dutela; ez dagoela irakurketa zuzen ala okerrik, badagoela eztabaidarako esparrurik. Baina, goiko kasuan ez bezala, propietate sozialei dagokienez, ikuspuntu egokiena *Conferralisma* dela baieztatzen du.

Har dezagun kontuan, adibidez, *emakume* propietate soziala. Ástaren ideiarekin arabera, inor ezin daiteke emakumea izan isolamenduan. Norbaitek bere buruan baino, besteek dituzten usteen eta jokabideen baitan dago inor emakume izatea. Emakume propietatea inorengan emana da (modu egokian, ala ez) talde jakin batek oinarritzko propietate bat, sozialki esanguratsua, atzeman duelako. Hala ere, eta hau da gakoa, ez da beharrezkoa oinarritzko propietate bat edukitzea propietate soziala emana izateko; soilik oinarritzko propietatea edukitzearen *pertzepzioa*³ da beharrezkoa *Conferralism* lan-eremuan

³ Nahiz eta Ástak hainbat alditan «pertzepzio» terminoa erabiltzen duen, argitu beharra dago ez duela zentzu faktikoan erabiltzen. Izan ere, gure pertzepzioetan oker egon gaitzkeela kontuan hartzea garrantzitsua da bere teoriarentzako.

(antzeko moduan, baloiak ez du zertan atearen marra gainditu gola gol izateko, baldin eta epailearen *ebazpenak* gainditu duela badio).

Lehen atalean teoriaren ezaugarri orokorrak aurkeztu ondoren, bigarrenan, Ástak konstruktibismo sozialaren proiektuaz egiten du hausnarketa. Egileak bat egiten du proiektuaren ideia nagusiarekin eta bere «mozorroa kentzea» (*debunking*⁴) anbizioekin, baina zenbait ñabardurarekin. Ástaren arabera, mozorroa kentzeak edo agerian uzteak ez du zertan beti izan, askotan pentsatzen den bezala, naturala izateko pentsatutako propietatearen jatorri soziala agerian uztea. Mozorroa kentzeko proiektua, dio Ástak, ulertu beharko genuke testuinguru jakin batean zein propietate den *operatibo* agerian uzteko saiakeratza. Ástak uste du argibide hori beharrezkoa dela, bazuetan, mozorroa kentzea dagoeneko sozialak direla jakina den propietateetan egin daitezkeelako; kasu horietan, propietate operatiboa modu zehatzean identifikatzean datza, eta operatiboa beste propietate bat dela onartzera bideratzen duten uste okerrak agerian uztean. Ideia hau azaltzeko, egileak errefuxiatuen adibidea aurkezten du. Nahiz eta inork ez zukeen kategoria hori naturaltzat hartuko, argudio konbentzigarritz aldeztu du Ástak zenbait mozorro-kentze interesgarri egin daitezkeela arduraz, bai kategoria honekin, bai antzeko beste hainbatekin.

Hirugarren atalean, Ástak sexuaren eta generoaren arteko bereizketa feminista tradizionalari egiten dio aurre; bereziki, generoa sexuaren esanahi sozialtzat definitzen duen ikuspegi *post-beauvoirarrari*. Hori egiteko, Judith Butlerren (1990) lan-ildoan sakonki murgiltzen da Ásta, eta harekin bat dator bi kategoria horien arteko dikotomia zalantzan jartzean. Zehazki, ideia-aren funtsa honako hau da: generoa sexuaren esanahi soziala dela pentsatu beharrean, sexua generoaren eskema erregulatzailen bidez gauzatua dela ikusi beharko genuke. Zentzu horretan, Butlerrekin ados dago Ásta esatean sexua ez dela soilik kategoria deskribatzailea, baizik eta, generoa bezalaxe, osagai arauemaile garrantzitsuak ere badituela.

Laugarren atalean, Ástak *Conferralism* teoria bai sexu, bai genero kategoriei aplikatzen die. Sexuaren kasuan, egileak Butlerren ikuspuntuari jarraitzen ematen dio, nahiz eta, haren aurka, Ástak kontuan dauka badirela zenbait muga natural sexu batekoa izatearen inguruan. Zehazki, Ástak sinesten du sexua propietate emana dela, zeinean zenbait propietate fisiko atzemana izan diren (modu egokian, ala ez), eta zeinean arau sozial eta kulturek zehazten duten horietariko zein propietate fisiko diren esanguratsuak testuinguru bakoitzean. Generoari dagokionez, bestalde, Sally Haslangerrekin (2012) eta antzeko beste genero-teoriekin duen alde nagusia zera da: Ástaren arabera, genero kategoria (Ástaren ikuspuntuan, beste edozein kategoria

⁴ «*Debunking*» terminoa euskaratzen zaila da. Terminoak, propietate baten izaera soziala agerian uzteari egiten dio erreferentzia.

sozial bezalaxe) testuinguruaren arabera da. Goian esan bezala, *Conferralism* teoriaren arabera, sozialki esanguratsuak diren oinarrizko propietateak eta, beraz, atzemanak izateko garrantzitsuak, guztiz alda daitezke testuingurutik testuingurura. Horrela bada, teoria honek esan nahi du askotan entzuten ditugun «zinez da emakumea» edota «benetako emakumea» gisako esaldiak, gehiago ez zehaztuz gero, zentzugabe bihurtzen direla. Inor ez da, besterik gabe, emakumea. Kategoría sozialak testuinguruan errotuak daude. Hortaz, norbait emakume izan daiteke testuinguru batzuetan, baina ez bestetan. Ástak aipatzen ez duen arren, Caster Semenya atleta hegoafrikarraren kasu polemikoa adibide gisa erabil daiteke, kategoría sozialak eta, bereziki, emakume kategoría testuinguruaren arabera direla irudikatzen. 2018ko Nazioarteko Atletismo Federazioaren (IAAF) araudiaren arabera, Semenya bezala, *Sexuaren Garapenaren Diferentziaren* (DSD) ondorioz, testosterona maila batezbestekoa baino altuagoa duten emakume kirolariak, ezin dute 400 m eta 1500 m arteko lasterketan parte hartu, beren testosterona maila naturala botiken bitartez jaisten ez badute. IAAFaren arabera, testosterona maila bereziki baldintzarria da distantzia hauetan. Kasuaren konplexutasunean sartu gabe, badirudi erakunde honen ondorioa dela kirolari hau emakumea dela 100 m-ko lasterketa batean, eta ez, ordea, 800 m-ko beste batean.

Bosgarren atalean, beste zenbait kategoría soziali aplikatzen dio Ástak bere teoria; hala nola, arraza, erlijio edota ezintasunekin zerikusia dutenei. Arrazari dagokionez, egilea bat dator egun hedatua dagoen arrazaren definizio biologikoei egindako kritikarekin (Montagu 1964; Webster 1992), baina, aldi berean, arrazaren errealitatea azpimarratzen du; baliteke arrazak biologikoak ez izatea, baina errealak dira. Are gehiago, Ásta bat dator arrazak estatus sozialak direla dioen Haslangerren (2012) ideiarekin, baina ez dago ados pentsalari berak duen beste zenbait ikuspunturekin; esaterako, norbait arrazatik kategorizatua izatea botere-estruktura hierarkikoan leku bat edukitzea dela dioenarekin. Ástak onartzen du, sarritan kasua hori izan daitekeen arren, *Conferralism* teorian egiturak testuinguruarekiko duen mendekotasuna dela-eta, posible dela norbait arrazatik kategorizatua izatea, botere-estruktura hierarkikoekin zerikusirik zertan izan gabe. Zorritzarrez, egileak ez du aipatzen hierarkian oinarrizten ez den arraza-kategoriarik. Hori argigarria litzateke, eta lagunduko zukeen bere teoria Haslangerrena baino egokiagoa dela defenditzen.

Puntu horretaraino, liburua, batez ere, propietateak emanak izateko gaitasunaren fenomenoaz ari da. Hau da, propietate sozialak sortu eta mantentzen dituzten mekanismoak. Azken bi ataletan, haatik, egileak aztertzen du ea zenbat, eta zein modutan, eragiten dion emate honek kategorizatua izaten ari den gizabanakoari, eta haren auto-identifikazioari. Azken atala, hortaz, identitate sozialaren sorkuntza artikulatzeko ahalegina da, Ástaren kategoría sozialaren teoria metafisiko orokorraren barnean lekua duena.

Ástak identitate sozialaren teoria lantzeko duen modua da identitate sozialaren edozein teoriak eduki beharreko mugak zehaztea. Denak aipatu ezin ditzakedan arren, badira gogora ekartzeko moduko bi. Ástaren arabera, identitate sozialaren teoria batek eduki beharrekoa da, beste zenbait gauzaren artean, zentzua ematea pasatzearen (*passing*) fenomenoari (Mallon 2004) eta zentzua ematea identitate interseksionalei. Lehenengoari dagokionez, *konstruktibista sozial* gehienek aurre egin beharreko arazoa da. Zailtasuna, pasatzearen fenomenoari zentzua ematea da. Hau da, badirudi bereizketa behar dugula, norbait K kategoriako partaide izatearen eta, besterik gabe, norbait K kategoriako partaidetzat jotzearen artean (adibidez, norbait moztortzen denean). Arazoa zera da, *Conferralism* teoriarentzat talde esanguratsuak norbait K-ko partaidetzat jotzea da, hain zuzen, K-ko partaide egiten gaituena. Zaila dirudi, beraz, ezberdintzea K izatea eta «K-tzat jotzea». Ageriko arazo horren inguruan, Ástak dio ez dagoela gertatzen denaren deskribapen zehatzik. K-tzat hartzearen eta K izatearen arteko bereizketan arreta ipini beharrean, Ástak dio, besterik gabe, *passing* hori gertatzen denean, *Conferralism* teoriaren funtsa diren oinarritzko propietate esanguratsuen presentziaren identifikazioa dela okerra. Hau da, *passing* hori gertatzen denean, kategoria *eman* egiten da, nahiz eta ebazpen okerraren emaitza izan, zenbait oinarritzko propietate bazirela pentsatzean, berez ez zeudenean. Gogoratu, gainera, Ástarentzat «zinez da emakumea» edota «benetako emakumea» bezalako esaldiak zentzuga-beak direla, testuingururik ezean. Kategoria sozialak testuinguruan daude erroturik.

Bigarren mugari dagokionez, konstruktibista sozialek landu beharreko arazoetako bat gizabanakoaren identitate soziala ulertua izateko beharrezko dimentsioak zehaztea da. Alde batetik, kategoriak isolaturik analizatzeak gizabanako interseksionalen esperientzia alde batera uzteko arriskua du. Hau da, hainbat kategoria zaurgarrietako partaide direnen diskriminazio berezia kontuan ez hartzeko arriskua dago. Adibidez, emakume beltz baten esperientziak ez dira soilik bi ezaugarri horietatik eratorritakoen gehiketa, baizik eta diskriminazio mota berri bat. Aldi berean, imajina daitekeen edozein kategoria kontuan edukiz gero, ezinezkoa da orokortze esanguratsu bat lortzea. Gizabanako bakoitzarentzat, hein batean, eksklusiboa litzateke. Beste behin, *conferralist* esparruak duen testuinguruekiko mendekotasun bortitza dator erreskatean. Ástak dio identitate interseksional horien inguruko kezka desagertu beharko lirakeela testuinguru bakoitzean nabarmentzen den oinarritzko propietatea testuinguruak berak determinatzen duela ulertzean. Ez ditugu zertan gizabanako baten dimentsio guztiak kontuan eduki bere identitateari zentzua emateko; soilik testuinguruan esanguratsuak direnak inporta zaizkigu guri. Bada, gizabanako jakin baten portaera mugatua egon daiteke beltza delako, beste batena emakumea delako, eta, are gehiago, beste batena emakume beltza delako.

Liburuak hasieran galdera argia dauka jomugan: zer da kategoria soziala? Erantzunak guztiz konbentzitu ala ez, ezin ukatu egilea bete-betean sartzen dela galderan, eta modu zuzen eta originalean, gainera. *Conferralism* teoria kategoria sozialen izaera metafisikoari zentzua emateko modu dotorea da, bai eta kategoria horien eta jendearen izaera eta usteen arteko dependentsia-erlazioa ulertzeko modua ere. Jakin-nahiarekin utz zaitzake, alabaina, ea nola aplikatu daitezkeen lan esparru hori kategoriak ez diren beste fenomeno sozialetan, hala nola instituzioetan edota legeetan. Edozein kasutan, ezin Ástari leporatu zuriune hori, liburuaren hasieratik hori argi eta garbi utzi baitu. Laburbilduz, metafisika sozialean interesatua dagoen edonorentzat oso irakurketa gomendagarria da eta, batez ere, kategoria sozialen metafisikan lanean dabilenarentzat.

Erreferentziak

- BUTLER, Judith (1990), *Gender Trouble: Feminism and the Subversion of Identity*. New York: Routledge.
- HASLANGER, Sally (2012), *Resisting Reality: Social Construction and Social Critique*. Oxford: Oxford University Press.
- MALLON, Ron (2004), «Passing, Traveling, and Reality: Social Construction and the Metaphysics of Race». *Noûs* 38 (4): 644-673.
- MONTAGU, Ashley (1964), *Man's Most Dangerous Myth: The Fallacy of Race*. Cleveland: World Publishing Company.
- SEARLE, John (1997), *The Construction of Social Reality*. New York: Free Press.
- WEBSTER, Yehudi (1992), *The Racialization of America*. New York: St. Martin's Press.

Iñigo Valero

Universitat de Barcelona